

Proiektuaren diru-iturri nagusiak

Gure negozio eredua bi diru-iturri nagusitan oinarritzen da (barra eta janari-edari zerbitzuak eta txakurren gunea), eta biak ere elkarren osagarri dira, lokalaren irabaziak egonkortzeko eta urteko kostu altuei aurre egiteko.

1. Barra eta janari–edari zerbitzuak

Bezeroek tabernan kontsumitzen dituzten edarien ondorioz diru-sarrerak etengabea sortzen dute. Prezio orokorrak (6–8 euro orduko edaria barne) eta kontsumizio gehigarriek urte osoan zehar diru-iturri egonkorra bermatzen dute.

Hau izango da proiektuaren errenta nagusia, eta lokalaren mantentze-kostuei aurre egiteko ezinbestekoa.

2. Txakurren gunea

Atzeko aldean sortutako txakurren gunea bigarren diru-iturri nagusia da. Zerbitzu honek aukera ematen du eguneroko errentagarritasuna handitzeko, batez ere erdiguneko kokapena eta eskaera potentzial handia kontuan hartuta. Txakurrekin egoteko ordu bat 15 euro izango dira, 5 txarrur daukagunez eta egunero txakurren gunea 5 ordu irekita dagoenez gure diru sarrerak handiak izango dira.

Kalkuluen arabera:

- Eguneko 5 txakur $\times$ 5 ordu $\times$ 15 euro = **350 euro/egun**
- Hilero: **10500 euro**
- Urtero: **126000 euro**

Diru-iturrien haztatzea (ponderazioa)

Proiektuaren urteko diru-sarreraren banaketa hau da, diru-sarrera potentzialen analisisa eta merkatuaren eskaria kontuan hartuta:

Diru-iturriak	Haztatzea (%)	Arrazoi nagusiak
Barra + janaria	%70	Egonkortasun ekonomikoa, kontsumo jarraitua, bezero-fluxu handia Bilbo erdigunean.

Txakurren gunea	%30	Errentagarritasun handia orduko, baina kontsumoa aldakorragoa eta ordu-kopuruaren araberakoa.
------------------------	------------	---


Banaketa honek erakusten duenez, tabernako jarduerak negozioaren oinarrizko sostengua dira, eta txakurren gunea bigarren zutabe sendo eta osagarri gehigarrian kokatzen da.

Hasierako inbertsio beharrak

Proiektua martxan jartzeko beharrezkoak diren hasierako gastuak bi atal handitan banatzen dira: tabernaren egokitzapena eta txakurren gunearen sorrera.


Taberna prestatzeko hasierako gastuak

- Konponketak eta egokitzapenak: 5.000 euro
 - Altzariak: 3.000 euro
 - Sukaldeko ekipamendua: 6.000 euro
 - Barra eta zerbitzu-gunea: 2.000 euro
 - Lizentziak eta baimenak: 1.500 euro
 - Segurtasun ekipamendua: 800 euro
- Guztira: 18.300 euro



Txakurren gunea sortzeko hasierako gastuak

- Hesiak eta mugak: 500 euro
 - Lurzorua eta garbiketa: 300 euro
 - Janari/ur edukierak: 200 euro
 - Jostailuak eta oheak: 300 euro
 - Segurtasuna eta higieena: 200 euro
- Guztira: 1.500 euro




Taberna prestatzeko eta txakurren gunea sortzeko hasierako gastuak kontuan hartuta (18.300 euro + 1.500 euro =) 19.800 euro erabili beharko ditugu.

Urteko gastu orokorrak

Gastua	Urteko zenbatekoa
Alokairua	28.000 euro
Hornidurak	8.800 euro

Udal tasak/IBI	5.000 euro
Asegurua	3.800 euro
Mantentzea eta garbiketa	7.600 euro
Guztira	53.200 euro

Lokalaren urteko gastu nagusiak kontuan hartuta: Horrek erakusten du proiektuak urteko diru-sarrerara sendoak behar dituela, eta horregatik dira bi diru-iturri nagusi eta osagarri funtsezkoak.



Inbertsioen finantzaketa: Nondik lortuko dugu hasierako dirua?

Hasierako 19.800 euroko inbertsioa finantzatzeko **hiru iturri nagusi** erabiliko ditugu:

1. Aurrezki pertsonalak

Taldeko kide bakoitzak ekarritako aurrezkiekin hasierako gastuaren zati bat estaliko da. Kide bakoitzak 1000 euro inbertituko du eta 3 kide garenez 3000 euro inbertituko ditugu.



2. Laguntza eta mailegu publikoak

a) ENISA "Gazte ekintzaile" mailegua (25.000 euro – 75.000 euro)

Espainiako Gobernuak hainbat laguntza ditu negozio bat sortu nahi duten gazteentzat. Handiena ENISAK "gazte enprendatzailentzat" ematen duen laguntza da. Laguntza hau enpresaren izenean eskatzen den mailegu berezi bat da. Eman dezakegun dirua 25.000 eurotik 75.000 eurora bitartekoa da, eta berdin dio taldean zenbat garen, gehienez 75.000 euro eman dizkiegu guztira.




<https://www.enisa.es/es/financia-tu-empresa/lineas-de-financiacion/d/jovenes-emprendedores>

b) Autonomo berrientzako Eusko Jaurlaritzaren laguntza



Gero, beste laguntza bat dago. Laguntza honek Eusko Jaurlaritza ematen duen laguntza da. Autonomo bezala alta eman eta proiektu berri bat hasten duten gazteentzat. 2.000 – 2.200 euro inguru izaten da pertsona bakoitzerako. Hiru garenez, hirurok eskatutako baldintzak betetzen baditugu, guztien artean 6.600 euro inguru jaso ditzakegu (2.200×3).



Kanpo laguntza guztiak:

ENISA "gazte ekintzaile" mailegua eta Autonomo berrientzako Eusko Jaurlaritzaren laguntza kontuan hartuta gure hasierako inbertsioa 56.600 eurokoa ($50.000 \text{ euro} + 6.600 \text{ euro} = 56.600 \text{ euro}$) izango da.

Honi taldeko kide bakoitzako aurrezkinak (3.000 euro) gehitzen badiogu gure lokala sortzeko inbertzioa 69.600 eurokoa izango da. Diru-laguntza hauen bidez proiektuaren hasierako kostuak erabat estali daitezke.